

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2026 urtean Aramaioko umeen eskolaz kanpoko ekintzak finantzatzeko dirulaguntzak

BDNS(Identif.): 924980.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/924980>).

Lehena. Onuradunak

Edozein pertsona juridikoak eskatu ahal izango du, honako baldintzak hauek betetzen baditu:

- 3 eta 16 urte bitarteko adingabeak.
- Aramaioko udalerrian erroldatuta eta eskolarizatua egotea.
- Baldintza ekonomikoa betetzea.

Ez zaie laguntzarik emango dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik dutenei, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik dutenei, sexu-bereizkeriagatiko debekuak berariaz aipatuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Helburua

Ikaskuntza sustatzea hezkuntza formalaren jarduera osagarrien bidez.

Gizarteratzea eta aukera-berdintasuna sustatzea.

Dauden baliabideak berdintasunez eskura daitezen sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2026ko abuztuaren 13ko 292/2026 Alkatearen Dekretuaren bidez onartu ziren umeen eskolaz kanpoko ekintzak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak.

Laugarrena. Diruz lagunduko diren kontzeptuak

Honako ekintza hauek onartuko dira: musika HH, musika LH, pilota, dantza, panderoa, trikitixa, abesbatza, bertsolaritza, multikirola, psikomotrizitatea, irristaketa ikastaroa. Edo antzeko beste edozein.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Aramaio, 2026ko abuztuaren 13a

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA